

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO IKASTETXEAK HOBETZEKO EUSKO JAURLARITZAREKIKO HITZARMENA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 24ko hauteskundeen ondoren, PNV eta PSE-EEK Udal Gobernu osatu zuten Donostian eta beste era batera gobernatzeko konpromisoa aldarrikatu zuten: gardenago, irekiago, dinamikoago eta eraginkorrago.

Zentzu horretan, gobernu programan jasotzen da, Donostia hiri hezitzailea izateko asmoz, Udal-gobernuak hitzarmen bat sinatuko zuela Eusko Jaurlaritzarekin ikastetxeak hobetzeko, obren programa diruz laguntzeko, egonkortzeko eta behar bezala kudeatzeko eskolako instalazioak eta horien mantentze-lanak.

Honez gero, legegintzaldiko bi urte igaro dira eta Donostiako ikastetxeen instalazioak hobetzeko hitzarmenik ez da gauzatu. Hezkuntza jarduera jasotzen duten udal eraikinen egoeraren inguruko txostenik ere ez zaigu aurkeztu udal taldeoi. Batzordeetan, zinegotzi-ordezkariek ez zuten gai honen inguruan argibide handirik eman. Beraz, gardentasun gutxi eta are dinamismo eta eraginkortasun gutxiago.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari Udalbatza osatzen dugun taldeoi aurkez diezagula, eta gurekin konpartitu dezala, hezkuntza jarduera jasotzen duten udal eraikinen inguruko txostena.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari udal eraikinen inguruko txostena hezkuntza jarduera jasotzen duten eraikinen erabilera egiten duten eskola eta eragileekin konpartitzeko.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari Donostiako ikastetxeak hobetzeko Eusko Jaurlaritzarekin landu beharreko hitzarmena Udalbatza osatzen dugun taldeekin kontrastatu eta, ahalik eta adostasun zabalena lortuta, negoziazioa abia dezala, hartan oinarrituta, Jaurlaritzarekin.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia